

INFORMAZIO OHARRA

Gazteak Mugaz Gaindi programaren ondorioak aurkeztu dira

Eusko Ikaskuntzak, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak eta Insup Formation-ek sustatutako programak Euroeskualdearen indarguneak eta ahuleziak aztertu ditu, Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako gazteen ikuspegitik, baita euren kezkak eta eskaerak ere

Donostia, 2023ko uztailak 18. Gaur Donostian, Gazteak Mugaz Gaindi programaren ondorioak aurkeztu dira. Eusko Ikaskuntzak, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak eta Insup Formation-ek bultzatuta, NAEN Euroeskualdearen laguntzarekin gauzatu da. 2022an jarri zen martxan, eta 16 eta 32 urte bitarteko hogeitaz hamar gazte hartu dute parte, Euroeskualdearen barne-aniztasuna adierazten duten profilak izanik.

Gazteak Mugaz Gaindik helburu hauek ezarri zituen:

- Gazteen ezagutza eta bizitza soziala, ekonomikoa eta kulturala sustatzea, Euroeskualdeko herritarrak ardatz nagusi direla.
- Euroeskualdearen lurraldeetako gazteen lankidetzak eta jabetasunak sustatzea, balio partekatutako identifikatuz.
- Euroeskualdearen lurraldeen arteko ezagutza indartzea, lurralde-proiektu espezifikoak diseinatuz.
- Mugaren bi aldeetako gazteen arteko harremanak sustatzea.
- Euroeskualdeko lurraldeetako gazteen eragileen, banakoen eta erakundeen artean sare bat sortzea, elkar hobeto ezagutzeko eta gazteen beharrei erantzuteko.
- Gazteen arteko mugaz gaindiko lankidetzak garatzea hainbat sektoretan.
- Gazteen artean kontzientzia kritikoa garatzea, gaitasunaren hausnarketa eta azterketa sustatuz.
- Euskara lurraldeetan aberastasunaren adierazle bihurtzen laguntzea, hizkuntza komun horren erabilera baloratuz eta sustatuz.
- Gazteek eremu publikoan parte hartzen duten sustatzea, erabakiak hartzen eta gizarte integratzaileago eta parte-hartzaileago bat eraikitzen parte hartzen.

Orain aurkeztu diren ondorioen artean, nabarmentzekoa da Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako gazteen artean kultura-nortasun partekatua dagoela, eta euskara eta euskal kultura oso ongi baloratzen direla elementu egituratzaile gisa, besteren artean. Gainera, gazteak ohartzen dira Euroeskualdearen kultura-, gizarte- eta ekonomia-potentzialaz, baina sentitzen dute errealitate administratibo eta juridiko desberdinek hezkuntza- eta lan-aukerak murrizten dituztela, eta horrek frustrazioa eta desberdintasuna sortzen dituela.

Gabezia nagusien artean, garraioa ez dela nahikoa aipatzen da, kultura- eta hezkuntza-elkarreragina mugatzen baitu eta, ondorioz, elkarri aberastean eragin. Halaber, mugaren bi aldeetako etxebizitzaren egoerak emantzipazioa oztokatzen du eta, horrekin batera, gazteriaren proiektu pertsonal eta familiarak aurrera eramatea.

Bestalde, parte-hartzaileek ingurumen-erronken erabateko kontzientzia dute, eta ingurumena gehiago errespetatzen duen eredurantz aldaketaren alde egiteko borondatea adierazi dute.

Hala eta guztiz ere, erakunde sustatzaileen iritziz, Gazteak Mugaz Gaindi programak lagundu egin du Euroeskualdeko gazteen artean nortasun kulturala indartzen, gizartearen parte-hartzea sustatzen eta espiritu ekintzaile eta berritzaileko giro egokia sortzen.

Azkenik, proiektuak agerian utzi du oso garrantzitsua dela kulturen arteko elkarrizketa bultzatzea, errespetua sustatzea eta aniztasuna baloratzea; administrazio-desberdintasunak eta oztupo burokratikoak direla-eta, zaila izan daiteke mugaz gaindiko proiektuak eraginkortasunez ezartzea; eta hezkuntza- eta prestakuntza-programak indartu behar dira kultura arteko ikaskuntzaren, eleaniztasunaren eta gaitasun ekintzaile eta berritzaileen alde. Gazteak prestatu behar dira lan-munduaren erronkei aurre egiteko eta, hortaz, Euroeskualdearen garapenean eragiteko.

NOTA INFORMATIVA

Presentadas las conclusiones de Gazteak Mugaz Gaindi – Juventud Transfronteriza

El programa promovido por Eusko Ikaskuntza, el Consejo de la Juventud de Navarra e Insup Formation ha analizado las fortalezas y debilidades de la Eurorregión desde la perspectiva de la juventud de Aquitania, Euskadi y Navarra, así como sus inquietudes y demandas

Donostia-San Sebastián, 18 de julio de 2023. Hoy en Donostia-San Sebastián, se han presentado las conclusiones del programa Gazteak Mugaz Gaindi – Juventud Transfronteriza, promovido por Eusko Ikaskuntza, el Consejo de la Juventud de Navarra e Insup Formation, con apoyo de la Eurorregión Nueva Aquitania-Euskadi-Navarra. Puesto en marcha en 2022, en su desarrollo ha participado una veintena de jóvenes de entre 16 y 32 años con perfiles representativos de la diversidad interna de la Eurorregión.

Gazteak Mugaz Gaindi se fijó los siguientes objetivos:

- Promover el conocimiento y la vida social, económica y cultural de la juventud, con la ciudadanía de la Eurorregión como eje central.
- Impulsar la cooperación y el empoderamiento de la juventud de los territorios de la Eurorregión mediante la identificación de valores compartidos.
- Reforzar el conocimiento mutuo de los territorios de la Eurorregión mediante el diseño de proyectos territoriales específicos.
- Fomentar las relaciones entre jóvenes de ambos lados de la muga.
- Crear una red entre agentes, individuos e instituciones juveniles de los diferentes territorios de la Eurorregión para fortalecer el conocimiento mutuo y abordar las necesidades de la juventud.
- Desarrollar la cooperación transfronteriza entre jóvenes en diferentes sectores.
- Desarrollar una conciencia crítica entre la juventud, promoviendo la reflexión y el análisis de temas relevantes.
- Contribuir a que el euskera se convierta en un indicador de riqueza en los territorios, valorando y promoviendo el uso de

esta lengua común.

- Fomentar la participación de las personas jóvenes en el ámbito público, involucrándolas en la toma de decisiones y en la construcción de una sociedad más inclusiva y participativa.

Entre las conclusiones ahora presentadas destaca la existencia de una identidad cultural compartida entre la juventud de Nueva Aquitania, Euskadi y Navarra, con una profunda valoración del euskera y la cultura vasca como elementos vertebradores, entre otros. Además, los y las jóvenes son conscientes del potencial cultural, social y económico de la Euroregión, si bien lamentan que las distintas realidades administrativas y jurídicas reducen las oportunidades educativas y laborales, generando frustración y desigualdad.

Entre los principales déficits se señala la insuficiencia del transporte, que limita la interacción cultural, educativa y el consiguiente enriquecimiento mutuo. Asimismo, la situación de la vivienda a ambos lados de la muga obstaculiza la emancipación y, con ello, la realización de los proyectos personales y familiares de la juventud.

Por otro lado, los y las participantes muestran plena conciencia de los desafíos ambientales y manifiestan su voluntad de contribuir positivamente al cambio hacia un modelo más respetuoso con el medio.

Con todo, a juicio de las entidades promotoras, el programa Gazteak Mugaz Gaindi ha contribuido al fortalecimiento de la identidad cultural entre la juventud de la Euroregión, al fomento de la participación social, y a la generación de un ambiente propicio para el espíritu emprendedor e innovador.

Por último, el proyecto ha evidenciado la importancia de fomentar el diálogo intercultural, la promoción del respeto y la valoración de la diversidad; se advierte que las diferencias administrativas y los obstáculos burocráticos pueden dificultar la implementación efectiva de proyectos transfronterizos; y la necesidad de fortalecer los programas educativos y formativos en favor del aprendizaje intercultural, el multilingüismo y las habilidades emprendedoras e innovadoras, preparando a la juventud para afrontar los desafíos del mundo laboral y contribuir al desarrollo de la Euroregión.